

Bergaran, bi mila eta hogeita hiruko maiatzaren 24an

BILDURIK

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Udaleko alkatea, Bergarako San Martin Plaza, z/g-ean egoitza izan eta P- 2007900-J I.F.K. zenbakia duen Bergarako Udalaren izenean.

Bestetik, Ion Ander Garitano Askasibar jauna, NAN 15.386.456-Y eta bizitokitizat Ibargarai hiribidea 5-1.A duena, IFK G-20988010 duen Bergarako Erraldioen Taldearen (BET) ordezkartzan.

Bi aldeek elkarri behartzeko ahalmena aitortu diote eta honako hau

ADIERAZI DUTE:

1.-Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 25. artikulua arautzen du udalerriek, beren interesak kudeatzeko ahalmenaren eta beren eskumenen esparruan, herritarren eta herriko taldeen beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta behar adina zerbitzu publiko eman ditzakeela. Horrez gainera, arau horrek xedatzen du udalerriak eskumena duela kultur jarduerak eta aisialdia antolatzeke.

2.- Bergarako Erraldoi Taldea irabazteko asmorik gabeko elkarte dela.

3.- Bergarako Erraldoi Taldearen helburu nagusia dela Bergaran erraldioen inguruko kultura sustatzea eta indartzea, eta herritik kanpo Bergararen izen ona zabaltzea. Horretarako prest dagoela udalarekin kolaboratzeko, eta hori onuragarria dela udalarentzako.

4.- Erraldioen kalejiretan eta bestelako kultur ekintzetan (ikastetxeekin, kultur edo gizarte eragileekin egindakoak, edota taldeak bakarka bultzatutakoak), erabiltzen dituen erraldoi batzuen jabea Bergarako udala dela eta beste batzuen berriz, Bergarako Erraldioen Taldea elkarte. Elkarrearenak dira ere ekitaldi horiek burutzeko erabiltzen diren beste hainbat material, eta horien erabilera eta mantenua arautzea komeni da urtean zehar udalerrian edo udalerritik kanpo elkarrekin burutuko dituen ekitaldiekin batera. Bestalde, elkarrekin bere jabetzako materiala gordetzeko lekua behar du eta udalari eskaera luzatu dio.

Gauzak horrela, ondorengo klausulak dituen hitzarmena hitzartu dute.



[Handwritten signature]

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Bergarako Udalak bere jabetzakoa den Zabalotegi 14an kokatuta dagoen bigarren eraikinaren izkinako gela, *Erraldoi Taldearen biltegia* izenaz ezagutzen dena, (ikus atxikitzen den planoa, gorriz markatuta dagoen lokala) erabiltzen utziko dio Bergarako Erraldioen Taldea (BET) elkarteari elkartearen materiala gordetzeko inolako errentarik edo bestelakorik ordaindu gabe eta elkarteak onartu egiten du. Zabalotegiko lokalean gordeko dira baita Udalaren jabetzakook diren erraldoiak ere.

Halaber, Bergarako Udalak Tremefil-eko lokalean Bergarako Erraldoi Taldearen jabetzako kamioia eta erremolkea gordetzen utziko dio.

BIGARRENA.- Bergarako Erraldoi taldeak zehaztutako materiala gordetzeko soilik erabiliko ditu Udalak lagatako lokalak.

Hemen adostutako erabileratik aparte beste zerbaitetarako erabili nahi izanez gero, eskaera idatziz aurkeztu beharko du Udaletxean Bergarako Erraldoi Taldeak, zertarako erabili nahi den eta aldaketaren arrazoiak azalduz.

Eskaera aztertu ondoren, Udalbatzarrak dagokion erabakia hartuko du.

Eskaera onartu ezean, BET taldekoek lokala libre utzi beharko dute udalak horrela eskatuz gero, laga zaien baldintzetan, gehienez ere hilabeteko epean.

HIRUGARRENA.- Erabiltzen lagatako lokalean hobekuntzak egitekotan jabearen idatzizko baimena beharko da. Edozein modutan, egindako obrak lokalaren onerako geratuko dira eta udalak ez du ezer ordainduko ezta inongo konpentsaziorik emango ere.

Lokal horien ohiko mantenua eta argindar gastuak Udalaren kontura izango dira, eta baita zergak ere, beti ere erabilera oker bat egiten ez bada.

LAUGARRENA.- Jabeak edozein momentutan ikuskatu ahal izango du Zabalotegiko lokala, kontserbazio egoera ziurtatzeko. Horretarako aurretik jakinarazitako egun eta orduan taldearen ordezkari batekin sartuko dira udaleko ordezkariak.

BOSGARRENA.- BET Bergarako Erraldoi taldearen jabetzakoa da ondorengo materiala:

- "Juan Jose" eta "Fausto" izeneko bikote erraldoiak.
- Erraldoiak alde batetik bestera garraiatzeko 2 furgoneta eta erremolkea.
- Erraldoiak desmuntatu eta ongi babestuta gordetzeko 5 kaxa.



- BET Bergarako Erraldoi Taldearen kide guztiek taldearen irteeretan berdin janzteko erabiltzen dituzten uniformeak.
- "Tostoi" eta "Errelleno" izeneko bikote erraldoiak.
- "Kotoi" eta "Mahoi" izeneko bikote erraldoiak.
- "Bitorianatxo" izeneko erraldoia
- Erraminta kaxak
- Musika ekipoa
- Lokalean dauden armairu, apal, opari eta apaingarria

Bergarako Udalaren jabetzakoa da, berriz, ondorengo materiala:

- "Ximon" eta "Magdalena" izeneko bikote erraldoiak.
- "Peru" eta "Marixa" izeneko bikote erraldoiak.
- "Mari Kattalin" eta "Jose Bixente" bikote erraldoiak.
- "Guti" eta "Felixin" buruhandi bikoteak.
- Erraldoiak desmuntatu eta ongi kabitzeke moduko lau kaxa.
- Erraldoiak etzanda gordetzeko hiru litera.

SEIGARRENA.- Bergarako Udalaren erraldoiak zaindu eta erabilera egokia egiteko konpromisoa hartzen du BET Bergarako Erraldoi taldeak.

ZAZPIGARRENA.- BET Bergarako Erraldoi Taldeak herrian gutxienez 4 ekintza egiteko konpromisoa hartzen du. Udalak eta BETek printzipioz konpartsaren kalejirak egiteko adostutako egunak hauek dira: Aratusteak, San Martzialak, Penteskosteak eta San Martin jaiak, eguraldi eta bestelako baldintzek horrela ahalbidetzen badute. Bestela, kalejira horiek bi aldeek adostuko duten data berri baten egingo dira (edo beste ekintza bategatik ordezkatu).

Baita Pentekoste jaien barruan erraldoi eguna antolatzeko ere.

Ekitaldi bakoitzerako, ekitaldia baino gutxienez hilabete lehenago, BET Bergarako Erraldoi taldeak aurrekontua aurkeztuko beharko dio udalari eta honek egoki iritzitako erabakia hartuko du.

Udalak konpromisoa hartzen du, BETek ez-ohiko egoera bategatik (beste pandemia batek eragindako itxiera bat esaterako) konpartsaren ekimenak (kalejirak eta bestelako ekintzak) egiteko aukerarik ez balu izango, Udalak Erraldoi konpartsaren urteko oinarritzko gastuak estaliko dituela. Oinarritzko gastu horiek ondorengoak dira:

- BETek jabetzan dituen kamioneta, furgoneta eta erremolkearen aseguru gastuak.
 - Aipatutako 3 ibilgailu horien zirkulazio zergak.
 - Aipatutako 3 ibilgailu horien Azterketa Teknikoaren kostuak (ibilgailuetako bik 6 hilean behin pasa beharra daukate; furgonetak urtean behin).
- Elkarteen gaineko zerga.

Oinarritzko gastu horiek estaltzeko gehienera ere 1.800€ko diru-laguntza emango lioke Udalak BET Bergarako Erraldoi Taldeari.



Horrez gain, iraileko azken larunbatean antolatzen den *Kultura kalean* ekitaldian ere parte hartzeko konpromisoa hartzen du Bergarako beste hainbat talderekin batera inolako kontraprestaziorik jaso gabe.

Gainera, umeen artean zaletasuna sortzeko helburuarekin Bergarako hiru eskoletako kultur asteen dohainik parte hartzeko konpromisoa hartzen du BET Bergarako Erraldoi taldeak, betiere lan ordutegiekin bateragarri balira. Ekintza horiek aurrera eramateko, Bergarako Udalak Hezkuntza sailetik ekintza burutzeko beharrezkoa duen laguntza eskainiko dio.

Klausula honetako aurreko lerroetan aipatutako ekintzez gain Bergarako Udalak antolatzen dituen beste hainbat ekintzetan konpartsak parte hartzeko prestutasuna izango du.

ZORTZIGARRENA.- BET Bergarako Erraldoi Konpartsak beste herri edo konpartsa batekin elkartruke edo irteera bereziren bat egiteko asmoa izanez gero, edo Bergaran bertan antolatzen diren bestelako ekintzetan parte hartzea nahiko balu, Bergarako udalari eman beharko dio aurrez horren berri. Bergarako Udalak egoki ikusten badu, ekintza edo irteera horietarako Udalaren erraldoiak erabiltzeko baimena emango dio BET Bergarako Erraldoi konpartsari.

Bergarako udalak, egoki baderitzo, ekintza/irteera hauek burutzeko BET Bergarako Erraldoi Taldeari diru laguntza berezia emango dio. Horretarako eskaera aurkeztu beharko du elkarteak eta eskaera horren gaineko erabakian laguntza ematea erabakiko balitz zehaztuko da zein baldintzetan.

BET Bergarako Erraldoi konpartsa ekintza/irteera hauetan, Bergararen izena zabaltzeaz arduratuko da.

BEDERATZIGARRENA.- Udalak erraldioen jantzien garbiketa bere gain hartuko du ondorengo baldintzarekin: Garbiketa bi urtetik behin egingo da eta betiere urte horretan, konponketa gasturik ez baldin badago eta gehienez ere 10 erraldioen jantzien garbiketa. Horretarako jantzien garbiketaren aurrekontua aurkeztu beharko dio idatziz BET Bergarako Erraldoi konpartsak Udalari, eta azken honek oniritzia eman beharko dio aurrekontuari.

HAMARGARRENA.- Bergarako Udalarenak diren erraldioen kasuan, konponketaren bat behar dutenean gastuaren berri aurrez Udalari jakinaraziko zaio eta udalarekin adostuko da gastuaren zenbateko kopuruaren ordainketa.

BET Bergarako Erraldoi konpartsaren erraldioen kasuan, konponketaren bat behar dutenean gastuak BET Bergarako Erraldoi konpartsaren kontura joango da.

HAMAIKAGARRENA.- Erraldoi berriak erostea eta/edo inbertsioak egitea BET Bergarako Erraldoi konpartsaren gain izango da. Erraldoi berriak erostean Bergarako historia eta



Bergararen izen ona errespetatzeko eta babesteko konpromisoa hartzen du BET Bergarako Erraldoi Taldeak, eta horregatik erraldoi berriak enkargatu baino lehen Bergarako udalari horren berri emango dio.

HAMABIGARRENA.- BET Bergarako Erraldoi Taldeak Udalaren jabegokoak diren erraldoien irudia beste euskarri batzuetara (gomazko irudiak, ipuinak, piruletak...) eraman nahiko balu eraman ahal izango du beti ere Udalaren aurretiazko baimenarekin. Dena den, ohartarazten da udalak baimena emanda diola enpresa bati "Ximon" eta "Magdalena" izeneko bikote erraldoien gomazko erreprodukzioak egiteko.

Euskarri horiek, Erraldoien kultura eta Bergarako izen ona zabaltzeaz gain, salmentarako izango balira, BETek konpromisoa hartzen du diru etekinak, elkarteak egin dituen eta egingo dituen inbertsioak finantzatzeko erabiliko direla.

HAMAHIRUGARRENA: Udalarenak eta elkartearenak diren erraldoien aseguruia, 2015eko azaroaren 9an emandako dekretuan jasotako baldintzetan Bergarako udalaren kontura izango da. Hitzarmenak irauten duen bitartean Erraldoien seguruaren kargu, Bergarako Udala egingo da.

HAMALAUGARRENA.- Hitzarmen honen iraupena 4 urtekoa izango da, hitzarmena sinatzen denetik kontatzen hasita. Dena den, bi aldeetako edozeinek urtea betetzen data baino hilabete lehenago beste aldeari idatziz abisatuta, hitzarmena bertan behar utzi ahal izango du.

HAMABOSGARRENA.- Dokumentu hau sinatzean Zabalotegi 14an kokatuta dagoen bigarren eraikinaren ezkinako gela eta Tremefileko eraikuntzaren sarrerako giltza bat ematen zaio Bergarako Erraldoien Taldearen ordezkariari, Jon Ander Garitanori, eta erabilera zuzenaren erantzule egiten zaio.

Erabiltzaileak sarrerako giltza aldatzeko beharra ikusiz gero, Udalari honen zergatia eman eta baimena eskatu beharko dio. Baimena lortuz gero, aldatu berri den giltzaren kopia bat Udaleko Kultura Zerbitzuan utzi beharko du giltza behar den bezala identifikatuaz.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean hirukoiztuta sinatzen dute.

ALKATEA
Gorka Artola Alberdi

ELKARTEKO LEHENDAKARIA
Ion Ander Garitano Askasibar



